

Aitor Hernández: “Egiten ari naizen denboraldiarekin pozik nago”

Euskaltel Euskadiko txirrindulari taldean laugarren denboraldia burutzen ari da 27 urteko ermuarra eta modu txukunean gainera. Erregulartasun handiz dihardu eta horren erakusle, Espainiako itzulian egindako lana izan da. Korritzen duen laugarren itzuli handia izan da. Itzuli horretan zela egon gara berarekin.

-Zer moduz zaude?

Egia esan nekatuta, etxeratze eta deskantsatzeko gogo biziz.

-Espainiako itzulian, zein izan da taldearen hasierako helburua?

Itzulia irabaztea. Horixe zen hasierako asmoa. Samuel Sanchez izan da taldeko liderra eta bera zaintzea eta berari laguntzea izan da taldekideon lana. Momentuz bide onetik goaz eta aukera dezente ditugu lasterketa irabazteko edo podiუმaren goialdean amaitzeko.

-Ihesaldiren batean ere ikusi zaitugu...

Samuelentzat lana egiteaz gain, ia egunero saiatu gara zeuden ihesaldietan lana egiten, geure burua egon zedin. Nik ere izan ditut nire aukerak eta pozik nago egindako lanarekin.

-Euskal Herriko jarraitzaileak sumatu duzu?

Mendiko etapetan banaka batzuk.

-Zein izan da izan duzun egunik okerreana?

Mendatean amaitzen ziren zenbait etapetan, etapa hasieratik lan asko egitea egokitu zait eta juxtu xamar amaitu ditut etapa horiek. Orokorrean nekatua nagoen arren, indarrez amaituko dut aurtengo Espainiako itzulia.

-Espainiako itzulian lehenago ere parte hartu izan duzu...

Aurtengoa izan da egiten dudana laugarren itzuli handia. 2006an, Tour-a egin nuen, 2007an Giroa egiten ari nintzela erorikoa izan nuen eta bertan behera utzi behar izan nuen lasterketa eta iaz eta aurtengo Espainiako itzuliak egin ditut.

-Laugarren denboraldia duzu jada aurtengoa. Zer moduz joan da denboraldia oro har?

Lasterketa askotan aurreneko hamabost txirrindularien artean amaitu dut eta horrez gain Paris-Niza eta Euskal Herriko itzulian podiumera igo naiz mendiko saria zela eta. Erregulartasuna erakutsi dut, orain arteko denboraldietan agertzen ez nuen erregulartasuna eta momentuz pozik nago egiten ari naizenarekin.

-Zure taldekide den Mikel Astarlozaren dopina ere



Aitor Hernández

albiste izan da....

Gu lasterketan ginela jakin genuen berria. Taldeak sumatu zuen albistea, baina zorionez bai entrenatzaileak eta bai taldeko managerrak ere lasai egoteko esan ziguten, babesleek aurrera jarraitzeko asmoa azaldu baitute. Mikeli babes osoa eskaini diogu taldekide guz-

tiok.

-Zein asmo dituzu denboraldia amaitzeaz dela?

Italiako klasikoetan hartuko dut parte. Espainiako itzulia amaitu ostean deskantsu txiki bat hartu eta Italiara abiatuko naiz Paris-Tours eta Lombardiako klasi-

koetan aritzeko.

Asier Ibaibarriaga

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)

dakotaermua@hotmail.com

Ardo banatzailea:

Riedel
Avgvstvs
Clos Mogador
Yllera
Cantosán
Luis Cañas

Hugel&Fills
Anima Negra
Irache
Cillar de Silos
Vriego
Laurona

DISTRIBUCIONES **ARRAL**
TELEFONOA: **943 17 60 75**